
BIRIBILLA

Gauza biribilla dirudi gure ametsak. Lenengo begiratu daigun gure aurrean daukaguzan gauzetara: Jolasera-ko pelotea biribilla da. Ta denpora pasagarri ta gorputz ta gogo osasuna zabaldu ta sendotzeko orixe bear mutil koskor ta gazteak.

Mundu guztian geurea, da izan bere, esku pelota jokoa ta ortarako trebetasuna. Pelota partiduak ikusi ezker, an, agertzen dira euskaldun gaztearen begia, burua ta gorputz liraintasuna.

Bere gogoa da, zintzotasunez, jokatu ta egokitasuna, artea agertu ta ikusle guztiei ederraren poza ta atsegiña emotea.

Peloteak daroa ba, itsu-itsuan, pelotariak emon dautson ariña, indarra ta albilidadea. Ta pelota biribil ta gaztearen trebetasunaz. jende guztia, gora-gora, ipinten daben urrezko partidu biribillak urten dau.

Ta ondoren zenbat zer esan gozo, jakintsu ta pozgarri jendearen artean. Ortarako da izan bere, gizonaren bizia.

Umea ez da jaio atsekabez minduta nekepean, negarrez bizitza saminpean bizi izateko. Berezko deia da pozaren naia, aurrerapidearen egarrria.

Ta mundu ontan nekeak utsik emongo ez daben ezkerroz, nekeak, pozak, negarrak, aurrerapideak, ondamuak ta laguntza onak, danen artean, katei biribil bat osotzen dabe. Ta gu katei biribil orren barruan gabiltzaz.

Aldiari buruz be, bardin, jazoten da. Il batak bestea dakar ondoren, ta olan, aldi barriak, tarteka, sortzen dira. Danak dira ederrak, baiña euren artean bat da illun eta baltzena, negua. Aldi orretan sartzen garanean, kolore gorritzka ta baltzak zurbildu egiten dira, biziak, sarriago, alde egiten dau gizartetik.

Solo ta mendiak igertu egiten direla dirudie, bizia lurrean, askoz, motelago agertzen da. Dana berantza doala esan lei ta ori dala-ta, udabarriari begira antziz egon oi gara.

Ta azkenean be, aldiaren legea betetan danean, emen da, guk maite dogun udabarria. Udabarri itxaroa maitasunezko argia da... Personak, arkaitzak, mendiak, larra-

bizkerrak, soloak, landak eta baratzak, danak, irriparrez, agertzen dira.

Biziaren erne-miña agertzen asten da alderdi guztietatik.

Neguak eskua emon dautso udabarriari ta lurraren erraiak, oparo, urez asetuta itzi dautsoz. Negu baltzak izan dau udabarriarentzat bere maitasuna ta biziaren gurintasuna emon dautso.

Udabarriak, bai ostera, eskar onez erantzun.

Alderdi guztietatik zugatz adarrak orbiztuten asi dira azala dizdiz, dakarrelarik, Bizia erne-miñetan, lora biur-tzen asi da adar magal ta puntetan.

Neguko edurra lora zuri biurtu da udabarrian ta maie-tza da lorartean etorkizunaren itxaropena.

Maietza gogo askoren ametsa. Emen dago gure gogo guztia lurrean ezarrita. Dana lorea, usain gozoa, argia, kimu barriak sortzen eta lora zurietan zabaltzen, sagardi osoa ezteguetako soiñeko zuri ederrez jantzi da.

Izadiraren Egillea eta lurra maitasunez beterik dagoz gizadiaren alde, frutu etorkizunaren itxaropena eskeiniaz.

Lurrak Egillearen bedeinkapenez ta gizonaren lanagaz lagundurik, janari onak emoten dautsoz gizadiari.

PAULIN

ZUGAZTIAK ERRIAK BAIÑO
LENAGOKOAK DIRA.

BASAMORTUAK ERRIEN OSTEAN
DATOZ.

ZUGAZTIAK GALTZEA
GIZONENTZAK ZIGORRA DA.

CHATEAUBRIAND
